# NUESTRO MANIFIESTO

**1 LA SOCIEDAD VASCA ES UNA SOCIEDAD SOLIDARIA**

A finales de los 80, se puso en marcha el Plan integral de lucha contra la pobreza y la exclusión social, lo que hoy día es la Renta de Garantía de Ingresos -RGI-. Porque la sociedad vasca entiende que la pobreza y la exclusión son responsabilidad de toda la sociedad.

*¿Te gustaría vivir en una sociedad que arroja a las personas más vulnerables a la marginalidad?*

**2 LA RGI ES UN DERECHO PARA TODA LA CIUDADANÍA VASCA**

No se trata de una ayuda, ni de una limosna. Es un derecho regulado por ley, la Ley de Renta de Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social; lo mismo que son un derecho la sanidad y la educación.

*¿Cómo verías que te negasen la atención médica si enfermas? ¿Y el derecho de tu hijo/a a ser escolarizado/a?*

**3 TODOS Y TODAS PODEMOS NECESITAR LA RGI EN ALGÚN MOMENTO DE NUESTRA VIDA**

Cualquiera de nosotros y nosotras podemos necesitar la RGI, porque perdemos el empleo y no podemos hacer frente a los gastos habituales, porque tenemos un accidente y necesitamos hacer frente a necesidades que antes no teníamos, porque la pensión que tenemos es insuficiente para vivir, porque en un momento dado no podemos hacer frente a la hipoteca.

*¿Te imaginas sin ningún ingreso para vivir?*

**4 LA RGI FAVORECE UNA SOCIEDAD VASCA COHESIONADA, MÁS JUSTA E IGUALITARIA**

La RGI posibilita que en Euskadi las tasas de pobreza sean inferiores a la media europea y estatal contribuyendo, así, a la cohesión y justicia social.

*¿Te has planteado como sería Euskadi con decenas de miles de familias sin ingreso alguno?*

**5 LA RGI TAMBIÉN CONTRIBUYE AL CRECIMIENTO ECONOMICO DE LA SOCIEDAD VASCA**

Este sistema también ha contribuido a mantener 26.770 puestos de trabajo y sin su existencia el PIB se habría reducido un 2%. Toda la sociedad se beneficia, tanto por los niveles de cohesión social, como por cuestiones de índole laboral y económica.

*Si alguien no puede comprar pan, alguien se queda sin producirlo y sin venderlo.*

**6 ESPECIALMENTE EN TIEMPOS DIFÍCILES ES MÁS NECESARIO MEJORAR Y FORTALECER LA RGI**

Especialmente en tiempos de crisis económica, con altas tasas de desempleo, de pobreza y exclusión, es cuando es más necesario mejorar el sistema de protección social.

*¿Verías lógico recortar en sanidad en mitad de una epidemia?*

**7 FORTALECER LA RGI ES APOSTAR POR TODAS LAS PERSONAS**

Queremos que todas las personas tengan el derecho a vivir con dignidad, con unos ingresos suficientes y también con recursos para salir de las situaciones de pobreza y exclusión. Calidad de vida para todos y todas.

*¿Te imaginas viviendo aislado sin relaciones sociales, sin empleo, sin amistades, sin oportunidades y lejos de tu tierra y de los tuyos?*

**8 EL COSTE DE LA PROTECCIÓN SOCIAL ES UNA INVERSIÓN A MEDIO Y LARGO PLAZO**

Invertir en la sanidad, en la educación, en los servicios sociales, en las rentas mínimas es construir una sociedad para todos y todas y además con futuro. Si no invertimos en estas cuestiones, y cada quién debe pagarlo de sus propio bolsillo, solamente unas pocas personas podrían tener sanidad, educación, servicios sociales.

*¿No estás de acuerdo en que es mejor prevenir que curar?*

**9 PEDIMOS UN SENTIDO DE PROPORCIONALIDAD EN LA LUCHA CONTRA EL FRAUDE**

El fraude existe en todos los sistemas, en la RGI, en el IVA, en el IRPF, en el Impuesto de Sociedades. Tenemos que luchar contra el fraude. El fraude en la RGI se estima en 0,3%, el fraude fiscal en el 25%; no desviemos la atención del megafraude y la corrupción.

*¿Es más lógico desconfiar de las personas pobres o de las que nadan en la abundancia?*

**10 LA ADMINISTRACIÓN ES RESPONSABLE DE LA BUENA GESTIÓN DE TODOS LOS SERVICIOS PÚBLICOS**

Todas las personas somos responsables del buen uso de los servicios públicos (sociales, sanitarios, de urgencia, escolares, carreteras, bibliotecas,…). La Administración pública es responsable de una gestión eficaz y eficiente de todos ellos.

*¿Consideras justo que se ponga en cuestión un servicio público de todos y todas por el uso inadecuado de unos pocos/as y/o los errores habidos en su gestión en un momento dado?*

# GURE MANIFESTUA

**1 EUSKAL GIZARTEA GIZARTE SOLIDARIOA DA**

80ko hamarkadaren bukaeran, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren kontra borrokatzeko Plan integrala martxan jarri zen, gaur egun Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) dena. Euskal gizarteak badakielako pobrezia eta gizarte-bazterkeria gizarte osoaren ardura direla.

*Pertsonarik zaurgarrienak bazterkeriara kondenatzen dituen gizarte batean bizitzea gustatuko litzaizuke?*

**2 DBE-A EUSKAL HERRITAR GUZTIEN ESKUBIDEA DA**

Ez da laguntza bat, ezta limosna bat ere. Legez araututako eskubide bat da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari eta Gizarteratzeari buruzko Legeak arautzen duena; osasuna eta hezkuntza eskubideak diren bezalaxe.

*Zer irudituko litzaizuke gaixotzen zarenerako arreta medikoa ukatuko balizute? Eta zure seme--alabei eskolara joateko eskubidea ukatuko baliete?*

**3 BEHARBADA GUZTIOK BEHAR IZANGO DUGU DBE-A GURE BIZITZAREN UNEREN BATEAN**

Gutako edozeinek, agian, DBEa beharko du, beharbada lanpostua galdu dugulako eta ezin diegulako ohiko gastuei aurre egin, istripu bat izan dugulako eta lehenago ez geneuzkan behar batzuei aurre egin behar diegulako, gure pentsioa ez delako bizitzeko adina, edo une jakin batean ezin diogulako hipotekari aurre egin.

*Pentsa zer den bizitzeko diru-sarrerarik ez izatea.*

**4 DBE-A LAGUNGARRIA DA EUSKAL GIZARTE KOHESIONATUA, ZUZENA ETA BERDINTA-SUNEZKOA LORTZEKO**

DBEa lagungarria da Euskadiko pobrezia-tasak Europako eta estatuko batez bestekoak baino baxuagoak izan daitezen, eta horrela, gizarte-kohesioa eta -justizia sustatzen ditu.

*Pentsa nolakoa izango litzatekeen Euskadi inolako diru-sarrerarik gabeko hamarka mila familia egongo balira.*

**5 DBE-AK, ERA BEREAN, EUSKAL GIZARTEAREN HAZKUNTZA EKONOMIKOA BULTZATZEN DU**

Sistema honek 26.770 lanpostu mantentzen lagundu du, eta ez balitz egongo, BPGa % 2 jaitsiko zatekeen. Mesedegarria da gizarte osoarentzat, hala eragiten duen gizarte-kohesioagatik, nola lan- eta ekonomia-arloko alderdiengatik.

*Pertsona batek ezin badu ogia erosi, beste norbaitek ezin du ekoitzi, ezta saldu ere.*

**6 GARAI ZAILETAN, BEREZIKI, ARE GARRANTZITSUAGOA DA DBE-A HOBETU ETA INDARTZEA**

Krisi ekonomikoetan, bereziki, non langabezia-tasak, pobreziarenak eta gizarte-bazterkeriarenak altuak diren, are beharrezkoagoa da gizarte-babeserako sistema hobetzea.

*Zentzuzkoa irudituko litzaizuke izurrite baten erdian osasun-arloan murrizketak egitea?*

**7 DBE-A INDARTZEA PERTSONA GUZTIEN ALDE APUSTU EGITEA DA**

Gizabanako guztiek duintasunez bizitzeko eskubidea izan dezatela nahi dugu, diru-sarrera nahikoarekin eta pobreziatik eta gizarte-bazterkeriatik irteteko baliabideekin bizi daitezela. Guztiontzako bizi-kalitatea nahi dugu.

*Pentsa nolakoa izan behar duen gizarte--harremanik gabe bizitzeak eta lanik gabe, lagunik gabe, aukerarik gabe eta zure herrialdetik eta senideengandik urrun egoteak.*

**8 GIZARTE-BABESAREN KOSTUA EPE ERTAIN ETA LUZERAKO INBERTSIO BAT DA**

Osasunean, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan nahiz gutxieneko errentetan inbertitzea guztiontzako gizarte bat bultzatzea da, etorkizuna duen gizarte bat sustatzea. Ez bagenu esparru hauetan inbertituko eta nork bere poltsikotik ordaindu beharko balu, gutxi batzuek bakarrik izango lituzkete osasuna, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak.

*Ez duzu uste hobe dela gogoan hartzea damutzea baino?*

**9 IRUZURRAREN KON-TRAKO BORROKAN PROPORTZIONALTA-SUNEZ JOKATZEA ESKATU NAHI DUGU**

Iruzurra sistema guztietako arazoa da: DBEkoa, BEZekoa, PFEZekoa nahiz Sozietateen gaineko Zergakoa. Iruzurraren kontra borrokatu behar dugu. DBEaren kasuan, iruzurra gutxi gorabehera % 0,3koa dela kalkulatzen da, eta iruzur fiskala, berriz, % 25ekoa; ez dezagun arreta megairuzurretik eta ustelkeriatik desbideratu.

*Zentzuzkoagoa al da pobreez mesfidatzea ala oparotasunean bizi direnez?*

**10 ADMINISTRA-ZIOAREN ERAN-TZUKIZUNA DA GIZARTE-ZERBITZU GUZTIAK BEHAR BEZALA KUDEA DAITEZELA**

Guztion erantzukizuna da gizarte-zerbitzuak behar bezala erabiltzea (gizarte--zerbitzuak, osasunekoak, larrialdikoak, eskola, errepideak, liburutegiak...). Administrazio publikoaren erantzukizuna da guztiak eraginkortasunez kudeatzea.

*Zuzena iruditzen zaizu gutxi batzuek gaizki erabiltzen dutelako edo une jakin batean gaizki kudeatu delako zerbitzu publiko bat zalantzan jartzea?*